# G O R A  E L G O I B A R ! ! !

(Umeen tanborrada -- Tamborrada infantil)

I. Azpiazu

Gure maitasun amotsa da jaioterria,
beretzat gure biotza ta geran guztia.
Bertan nun seaska, orain nere txoko eztia:
beti maiteko det nere gogo bizi biziaz.
Gora, gora, Elgoibar !

---------

Nere erria maite det, nerea detalako,
aundi, eder da neretzat, beste ez bezelako.

---------

Emen argia ikusi, emen pakean bizi,
Jainko ta erria maitatzen, emen det nik ikasi.

---------

Bere oitura ta jaiak oso atsegin zaizkit,
umez garbi ikasiak, gorde nai ditut beti.

---

# E L G O I B A R

Letra: I.Azpiazu

Música: I.Bereciartua

Mendi tontorrez koroaturik,
Morkaiko'n zutik Gurutza,
zelai oñetan
ibai ertzetan
Elgoibar'ek du bizitza.
Gure txokoa
maite gozoa
goraltzen zaitu biotzak

Basetxe txuriak edonun ageri,
sei aldeko balleretan;
Kalez luzea, plazaz eder txukuna
eliz-torre dotoreaz.
Lanean trebe, itzetan leialak
garbi, kementsu jokatuz,
Jainkoaren ta giza-legeak
zintzoki betetzen ditu.
Elgoibar'tarrak beti dirade
ondo artuak edonun.

(Amaitzeko / para terminar:)
AUPA ELGOIBAR